

The background features a central illustration of a schoolhouse with a bell tower. To the left, a stick figure holds a large circle. To the right, another stick figure holds a triangle. The scene is surrounded by various abstract shapes, including spirals and a smiling face at the bottom. The text is overlaid on this background.

ESKOLAKO AGENDA 21

Arrasaten:

Zarata eta Uhin elektromagnetikoak Proiektua
10-11 ikasturtean

Arizmendi Ikastola: Gaztelupe, Gazteluondo, Arimazubi eta Sta
Teresa gunek
Arrasateko Institutua.
Arrasateko Herri Eskola
Legazpiko CEIDA (Eusko Jaurlaritza) eta
Udalako Ingurumen Eskola (Arrasateko Udala)

**IKASLEEN KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK
ETA KONPROMISOAK** (bilkura berezian aurkezteko)

Arrasaten, 2011ko maiatzaren 5ean

Arizmendi (Gaztelupe): IRUNE ALTUBE

Arratsalde on!

Gaur hemen gaudenok Arrasateko Herri Eskolako, Institutuko eta Arizmendi Ikastolako (Gazteluondo Gunea, Arimazubi Gunea, Sta Teresa Gunea eta Gaztelupe Gunea) ikasleak gara. Ikastetxe hauetako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiak, 2.779 ikasle, jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 21 lantzen.

Eskolako Agenda 21aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean, eta gure esku dagoena egiten.

Arrasate Herri Eskola: NOAH BERROCAL

Duela 8 ikasturte hasi genuen proiektua eta denbora luze horretan gai hauek landu ditugu: zaborra, ura, energia, kontsumoa, publizitatea, ekitatea eta aurtengoa zarata eta uhin elektromagnetikoak.

Kurtso honetan asko izan dira egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan bai herriko hainbat txokotan, baina, zuek ideia bat egiteko, adibide gisa hemen zerrendatzen ditugu jarduerak:

Arimazubi: IRATI LARRINAGA

- Gure zentroetan zarata eta uhin elektromagnetikoei buruz hitz egin dugu, bideoak ikusi ditugu, jokoak eta jolasak egin ditugu, txosten asko egin ditugu, gaiarekin lotutako kontzeptuak... Gelan gaia eztabaidatu dugu eta iritziak jaso ditugu.
- Sonometroak erabiliz, gelako eta ikastetxeko hainbat lekutako zaratak neurtu ditugu.

Institutua: AMAGOIA MUÑOZGUREN

- Ikastetxeko tokirik zaratatsuenetan (pasabideetan eta jantokian) zarata maila jaisteko txartelak ipini ditugu.
- Udalako Ingurugiro Eskolakoeekin hainbat lana egin dugu: herritarren artean galdetegiak egin ditugu, emaitzak aztertu ditugu eta arazoak konpontzeko proposamenak atera ditugu.

Gazteluondo: MAIDER URIBETXEARRIA

- Uhin elektromagnetikoei buruzko artikuluak irakurri ditugu eta ondorioak atera.
- Ikastetxeko eremu elektromagnetikoak detektatzeko aparatuak erabili ditugu eta elektrogailuek sortzen dituzten eremuak detektatu ditugu (labeak, ordenadoreak, inprimagailuak,...)
- Ikastetxeko argitasuna neurtu dugu hainbat txokotan.

Santa Teresa: NAROA AGIRRE

- Gure ikastetxeetan ikasleen artean galdeketa batzuk egin ditugu eta zaratari buruz ondorioak atera; gure konpromisoak hartu ditugu hain zaratatsuak ez izateko eta toki askotan zarata maila jaisteko.
- Zaratari buruzko hitzaldi batean egon gara, udal aparejadoreak emandakoa, eta munduko herri zaratatsuen artean gaudela konturatu gara, gure aurrean Japonia besterik ez dago. Hitzaldi horretan Arrasatek dituen zarata mapak ikusi ditugu eta herrian zeintzuk diren zarata iturriak (trafikoa, aisialdiko ekipamendu batzuk, ...)

Gaztelupe: AITOR URRUTIA

- Herriko zarata zuzenean egiaztatu dugu. Kale eta toki batzuetan sonometroarekin neurketak egin ditugu eta zarata maila ezberdinak taula batera eraman, horrela guk ere tokirik zaratatsuenak atera ditugu eta gure zarata mapak egin ditugu.
- Uhin elektromagnetikoei buruz hitz egin dugunean wifi sistema eta mugikorrek oso zabaldua daudela ikusi dugu, gero eta gazte gehiagok dute mugikorra eta gure herriko ikastetxeetan wifi sistema jartzen ari da.

Arrasate Herri Eskola: NURIA ARREGI

- Udal ekipamendu batzuetan (Kulturaten, adibidez) Internet erabiltzeko wifi sistema dago zabaldua.
- Uhin elektromagnetikoei buruz zer dakigun azaltzeko, lan batzuk egin ditugu eskolan (artikuluak irakurri, bideoak ikusi, eta abar).

Institutua: JOKIN AMOZARRAIN

'Zarata eta uhin elektromagnetikoak' gaia aztertu dugunean konturatu gara jendea prest dagoela laguntzeko, baina askotan ez dakiela nola lagundu.

Ikasle guztiok parte hartu dugu orain aurkeztuko dizkizuegun ondorio, proposamen eta konpromisoak egiten. Lehendabizi ikasgela bakoitzean adostu ditugu, gero ikastetxe bakoitzeko ikasgeletako ordezkarien arteko batzarrean, eta amaitzeko, hemen aurkeztuko dizkizuegunak ikastetxe guztietako ordezkarien arteko batzarrean.

Santa Teresa: JOKIN GODOY

Pleno areto honetan gauden ikasleak lehen aipatu ditudan ikastetxe guztietako ikasleen ordezkariak gara. Orain entzungo dituzuen proposamen eta konpromisoekin Arrasateko bizi kalitatea hobetu nahi dugu, hau da, Arrasate hobe bat lortzen lagundu nahi dugu.

ARRASATEKO UDALBATZARRERAKO KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK

Gazteluondo: IZAR RUIZ DE AUSTRI

Arrasateko bizilagunek uste dute zarataz inguratuta bizi garela eta herria nahiko zaratatsua dela; hala ere, lekuaren, egunaren eta orduaren arabera izaten dela. Jende askorentzat leku zaratatsuenak erdialdea (tabernak), lantegiak eta errepideak dira. Orokorrean arrasatearrei ez die gehiegi molestutzen, ohituta gaude.

Arimazubi: BEÑAT SALABERRI

Gure herri erditik eta inguruetatik pasatzen den trafikoa dugu errudun inportante bat; beraz, oso garrantzitsu ikusten dugu kotxea gutxiago erabiltzea eta garraiobide ekologikoagoak bultzatzea. Gure proposamenak hauek dira: **“Garraio publikoa bultzatzea eta herriko autobusak eta udal kotxeak elektrikoak izateko aukera aztertu eta beste herri batzuetan dauden esperientzen berri izatea”**.

Gaztelupe: AITOR URRUTIA

Guk gure aldetik herrian dauden aukerak erabiliko ditugu gehiago, bai garraio publikoa bai bidegorriak. Baina beharrezkoa ikusten dugu jendeari aukera horiek ondo ezagutaraztea eta hurrengo proposamena egiten dugu: **“bidegorriak eta bizikletaren erabilera bultzatzeko informazio kanpainatxoren bat egitea, hau da, bidegorria nondik nora doan, eta herrian bizikletarekin mugitzeko dauden aukerak azpimarratzea”**.

Institutua: LOURDES GARCIA

Errepide inguruetan zarata handia dagoela konturatu gara eta askotan toki horien inguruan etxebizitzak daude; arazoari aurre egiteko, proposamen hau egiten dugu: **“errepide bazterretan panel akustikoak edo/eta landaretza jartzea”**. Agian hurrengo zuhaitz egunerako toki horietan zuhaitzak landatzeko aukera aztertu daiteke.

Gazteluondo: NATALE GARITAONAINDIA

Gu prest gaude Udalak herri inguruan landaretza sartzeko ekintzetan parte hartzeko, bai zuhaitz egunean bai antolatu daitezkeen beste ekintza batzuetan.

Arrasate Herri Eskola: ANDER BENGOA

Zaratak gure osasunean eragina izan dezake: buruko mina, belarriko mina, lo egiteko arazoak, nerbio gaixotasunak, estresa, eta abar. Hori guztia oso garrantzitsua da eta herriko bizi kalitatean zuzenean eragiten du. Zarata kontrolatzeko udal ordenantza badagoela dakigunez, gure proposamena da **"udal ordenantza ondo aplikatzea eta, betetzen ez denean, isunak jarri eta sentsibilizazio kanpainak antolatzea"**.

Guk ere gure aportazioa egingo dugu eta saiatuko gara eskola eremuan baju hitz egiten, musika aparatua bolumen baxuagoan erabiltzen eta materialekin zarata ez ateratzen.

Arimazubi: JOSEBA URCELAI

Herritar batzuk kaleetan obrak egiten direnean zarata asko ateratzen dela komentatu dute eta kaleak garbitzeko erabiltzen diren makinak oso zaratatsuak direla, eta askotan etxeetan lorik ezin dela egin kanpoan dagoen zaratagatik; gure proposamena da **"erabiltzen diren makinak ea aldatu daitezkeen aztertzea horrela zarata maila jaisteko"**. Bestetik **"birziklatzeko ontziak garbitzeko ordutegiak ea egokienak diren aztertu"** lan horrekin zarata asko ateratzen da eta.

Arrasate eta auzoko jaietan zarata oraindik handiagoa izaten da. Momentu hauetan gure ustez gehiago kontrolatu behar da; guk proposatzen dugu **"jaietan musika baxuago eta ordutegia zaintzea eta barraketan musikaren bolumena jeitsiaraztea"**.

Sta Teresa: AIDA AGUADA

Bukatzeko, uhin elektromagnetikoei buruz herritarrek oso gutxi dakite eta Europan aspalditik eztabaidatzen ari da horren inguruan. Aditu askoren arabera, oso gutxi dakigu Wifi sistemaren osasun kalte potentzialei buruz eta antzerakoa mugikorrei buruz. Aspektu horiekin lotuta bi proposamen egiten ditugu: **"herritarrei informazioa jasotzeko aukera ematea, hau da, adituen hitzaldiak antolatzea"** eta **"prebentzio printzipioa aplikatuz udal instalazioetan (liburutegia, ludotekak,...) wifi sistemaren ordez beste aukera bat (kableen bidez) jartzeko aztertzea"**

ESKERRIK ASKO ZUEN ARRETAGATIK